[Iruñea] Acción Anti-TAV de Mugitu! en la capilla de San Fermín

MUGITU MUGIMENDUA :: 02/01/2019

Mugitu! Mugimendua llevó ayer el requerimiento de que paren las obras de TAV hasta la capilla de San Fermin.

GERO ETA GUTXIAGO FALTA DA... AHTa GELDITZEKO

Iruñako abesti ezagunak egiten duen moduan (urtarrilak 1, otsailak 2, martxoak 3...) Mugitu mugimenduak ere urte hasieran ipini nahi du AHTa gelditzeko behar den denboraren atzerakontua. Gainera ez dugu gero “gaixoa ni” abesten egon nahi, hainbat ikerketa (Ekopol taldearen ikerketak, FEDEAren txostenak, Europako Kontu auzitegiaren txostena...) eta nazioarteko experientziei begira aurreikusi eta sahiestu litezkeen ondorioen aurrean.

2019a hasi berritan aunitz dira gure jendarte eredua aldatzeko premia islatzen duten zantzuak (aldaketa klimatikoaren ebidentziak, lehengaiak ustiatzeko gerrak, plastikoaren krisia, herrialde aberastuetakoak ez diren herritarren zapalketa eta eskubideen ukazioa, migratzeko eskubidea kasu...), hala ere estatuko zein Nafarroako agintariak euren itsukerian tematurik jarraitzen dute. Ongizatea, abangoardia, modernitatea, aitzindaritza, berrikuntza, jasangarritasuna... haien ardatz direla sinitsarazi nahi digute baina ustelkerian leporaino murgilduta daude (CAN auzia, De Miguel auzia, AHTren obren esleipenetan eroskeriagatik auziperatuak Bartzelonan...). Bestalde, zaborren errausketarekin gertatu bezala, 2030erako indarrean sartuko omen den oinarrizko tren sareari buruzko Europako araudiak ez du abiadura handiko trenaren aldera jotzen, ohiko trenaren aldera baizik. Gainera, onartu berri den trenaren liberalizazioaren ondorioz honetan ere gastuak publiko eta mozkinak pribatu bihurtu nahian jarraitzen dute.

Hori dela eta, jai kide dugun Fermin deunarengana etorri gara oraingoan AHTaren aurkako borrokan lagundu gaitzan eskatzera. Proiektu inposatu eta txikitzaile honen gelditzeak gutxienez uztailaren 6ko suziriak adinako hunkipena eragingo baitigu. Iruindarrak, Gora AHTaren aurkako borroka!!!

_____

Hoy, día que da comienzo al 2019, Mugitu! Mugimendua ha llevado el requerimiento de que paren las obras de TAV hasta la capilla de San Fermin. Este es el escrito que explica la acción:

YA FALTA MENOS…PARA PARAR EL TAV

Tal y como narra la conocida canción sanferminera (1 de Enero, 2 de Febrero, 3 de marzo…) Mugitu mugimendua también quiere dar comienzo con el nuevo año a la cuenta atrás del tiempo que queda para parar el TAV. Además, no queremos tener que cantar a posteriori “el pobre de mi” ante las consecuencias previsibles y prevenibles que ya reflejaban varios informes (estudio del grupo Ekopol, de FEDEA, el informe del Tribunal de Cuentas Europeo…) y la experiencia internacional previa en alta velocidad.

En este recién estrenado 2019 multitud de señales indican la necesidad urgente de cambio de modelo social (la evidencia del cambio climático, las guerras por las explotación de los recursos, la crisis del plástico, la opresión y negación de derechos como el de emigrar de personas no pertenecientes a paises enriquecidos…) y aun así l@s gobernantes tanto del estado como de Navarra siguen obstinados en su ceguera. Nos quieres hacer creer que sus ejes son el bienestar, la vangoardia, la modernidad, la renovación, el liderar proyectos pioneros, la sostenibilidad… pero están sumergid@s hasta el cuello en corrupción (tema CAN, tema de Miguel, imputados por soborno en las adjudicaciones del TAV en Barcelona…). Por otro lado, como sucede con la incineración de basuras, el nuevo reglamento Europeo sobre la red ferroviaria básica que al parecer entrará en funcionamiento en el 2030 parece ser que se decanta hacia el tren convencional en vez de hacia el tren de alta velocidad. Sumado a esto, con la reciente aprobación de la liberalización de servicios ferroviarios siguen empeñados en que los gastos sean públicos y las ganancias privadas.

Por todo esto, esta vez hemos venido donde nuestro compañero de fiesta San Fermin a pedirle que nos ayude en la lucha contra el TAV. El parar este proyecto impuesto y destructor nos emocionará, por lo menos, tanto como el cohete del 6 de julio. ¡¡¡Pamplonicas, Pamplonicos, Viva la lucha contra el TAV!!!

MUGITU! MUGIMENDUA

---

https://eh.lahaine.org/irunea-accion-anti-tav-de